

Erreforma gelditu



JON ALONSO
ITZULTZAILEA

Duela 20-25 urte Saramago zenak ideia bat jarri zuen zirkulazioan: gure gizarteak ez dira demokratikoak, inork ez dituelako benetan aukeratzeko agintzen dutenak. Politikariak bai, baina botere erreala dutenak ez dira hauteskundeetara aurkezten. Saramagok ez ezik, ez daukat dudarik orduan ere askok jakingo zuela horrenbeste; baina ideia potentea suertatu zen, begiak ireki zizkigun askori. Zerbait susmatu baina gure susmoari hitzak jartzen ez genekienoi, batez ere. Jende arruntari, alegia. Horrenbeste zor diogu idazle portugaldarrari.

Kilowataren prezioa gora eta gora ari da. Argigarria izan da hau ere: gobernuak igoera galarazteko zenbait neurri iragarri (tartean konpainia elektrikoekin mozkinen poltsan eskua hala-nola sartu), eta hurrengo egunean elektrikoek prezioa igo dute berriz: gobernuaren neurriek zenbateko galera sorraraziko dieten kalkulatu, eta horrenbeste. Garbi gelditu da nork jartzen dion prezioa argiari. Konpainia elektrikoek agintzen dute, prezioak jartzeko dagoen sistema konplexu eta ulergaitz bati esker. Gobernuak bigarren mailako eragileak baino ez dira.

Duela astebete edo, sare sozialetatik edo horrelakoetatik dabilen zerrenda bat erakutsi didate. Bertan ageri dira kargu politikoa inoiz eduki eta gaur

egun, politika utzita, konpainia elektrikoetan kargua daukaten morroi dozena pare bat, hiru ez badira.

Alegia, Saramagok orain 25 urte asmo errebelatzaileaz esaten zuena, gaur egun ikusi nahi duenaren bistan dago.

Duela urte batzuk banku sistema erreskatatzeko milioi mordo bat eman zen. Analista ekonomiko batzuek esaten zutenenez, Estatuak bonoen bidez bildu zuen bankuak erreskatatzeko behar zuen dirua, zeinaren jatorria... pentsioen itsulapikoa baitzen. Diru hori ez zen inoiz itzuli.

Gaur ministro bat etortzen zaigu esatera pentsioen sistema defizitarioa dela, eta irtenbide bakarra dela urte gehiago lan egitea eta pentsio txikiagoa kobratzea. Terrenoa prestatzeko asmoz *boutade* bat ere bota du: hirurogeita hamabost urtera arte lan egin behar dela.

Hori esaten digun ministroak kargu garrantzizkoak eduki ditu banku sisteman; hara itzuliko da, ausaz, ministro izateari uzten dionean. Zero askotako soldata edukiko du, eta, nork daki, agian pentsio erraldoi eta blindatu bat ere bai, aurrezki kutxak hondora zihozazenean beren kudeatzaileek (hondoratzearen erantzuleak) zuten bezala. Ez zait iruditzen hirurogeita hamabostak bete arte lan egingo duenik.

Madrilen zaudeten euskal ordezkariek, entzun: erreforma hau ez baduzue gelditzen, ez zaituztegu inoiz barkatuko. ●

Nagusikeria



LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA

Herriko atso autubatzaileek begiradaz goitik behera egiten ziguten errepasoa: “egoki” jantzita geunden, ondo orraztuta, zapatak lustrez ondo garbituta generamatzan... Kontrol sozialerako begirada gaiztoak ziren, bakoitza bere lekuan kokatzeko, eta bakoitzari etiketa bat jartzeko. Ondo/gaizki, onarpena/destaina, irribarrea/bekozkoa. Moralaren zaintzaileak, zentsore eta inkisizio bihurtuta, txutxumutxua zabaltzeko beti prest. Nagusikeria morala.

Jaurtitzen zizkiguten begiradak erdi-disimuluan egindakoak izaten ziren. Nahiz eta guk ederki genekien epaiketa

zorrotza eta gupidagabea jasaten genbiltzala. Eurak egia moralaren jabe ziren, bestean gainera kokatzen zuten euren burua.

Esango nuke, zahar klasista eta moralaren zaintzaile horiek denborarekin desagertzen dabiltzala, edo, behar bada, egindako epaiek inportantzia galdu dute. Baina erreleboa lortu dute: gazteagoa, *kulturetagoa*, “nik badakit, zuk ez” esanez lez begiratzen duena, besteen arrazoiak entzuten ez dituen. Beti gainera begiratu, besteok klasifikatu nagusikeria moralaz, sudurra gorago. Modernoak ustez, baina autubatzaileak lakoak. ●